

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak 2019ko Berdinna saria eman dio Alaitz Kolektiboari

*Sari horren bitartez, Gobernuak «elkartearen ibilbide luzea eta berdintasunarekin nahiz Nafarroako emakumeekin 50 urte baino gehiagotan izandako konpromisoa» aitortu ditu*

Asteazkena, 2019.eko otsailak 6

Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onartu du gaurko saioan, eta, dekretu horren bitartez, 2019ko Berdinna saria eman dio Alaitz Kolektiboari, «Nafarroako emakumezkoen eta gizonaizkoen arteko berdintasuna lortze aldera zalantza-izpirik gabe egin dituen aurrerakuntzak» direla eta. Saria martxoaren 6an entregatuko dela dago aurreikusita.

Alaitz Kolektiboari dagokionez, Gobernuak elkartearen ibilbide luzea nabarmendu du. Izan ere, 50 urte baino gehiago eman ditu jardunean, 1962an sortu zenetik. Hain zuzen ere, mugimendu progresistei lotutako proiektu gisa sortu zen, emakume guztiei zuzendutako espiritu kritikoa garatze aldera, hainbat arlotan.

Halaber, elkarteak ikuspegi feminista integratzearen alde egunero egindako lana nabarmendu du Gobernuak. Izan ere, elkarteak emakumeen ahalduzko soziala sustatu du, eta, hala, emakumeok mugatu zituen etxeko eremua gainditu da. Alde horretatik, hura sortu zenetik eta handik aurrera izandako ibilbidean zehar, definizio konbentzionalak eta aldi horretako generoari buruzko arauzko aginduak eraldatzeko espazio bat sortu zuen elkarteak.

Honako hau gogorarazi beharra dago: Foru Gobernuak aurreko urtean sortutako sari horren xedea da Nafarroako emakumezkoen eta gizonaizkoen benetako berdintasuna lortu dadin lagundu edo sustatu duten ekintzak, lanak edo proiektuak egin dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak edo arlo horretan izandako bizitza- zein lan-ibilbidea dela-eta saria merezi duten pertsonak saritzea.



Saria jasotzeko hautagaitzarekin batera, Alaitz Kolektiboko parte-hartzaileek, hainbat alorreko adituek eta elkartearen hainbat proiektuko parte-hartzaileek idatzitako laguntza emateko eskutitz asko daude. Eskutitz horiek guztiak garrantzitsuak dira, eta hautagaitzak duen laguntza soziala ere erakusten dute, bai eta laguntza horren eragina ere.

### **Prestakuntza eta ahalduntzea**

Alaitz Kolektiboaren merituen artean, honako hau da nagusia: «ez soilik egindako proiektuen aniztasuna eta garrantzia, baizik eta ikuspegi eta erronka berriak izateko jarrera, besteak beste, emakumezkoen ahalduntzea, genero-berdintasunari buruzko gaitasunen inguruko prestakuntza jasotzea eta lanbide-gaikuntza. Hala, gizartean ahulak diren emakumeek parte hartzeko proiektuak sustatu ditu elkarteak. Halaber, Nafarroako beste hainbat elkarteren alde egin du, eta gutxiengo etnikoen eta emakume ijitoei buruzko ikerketak gauzatu ditu.

Azkenik, saria emateko orduan, Nafarroako Gobernuak elkartearen eragina baloratu du. Izan ere, eragin hori «emakumeek jasaten dituzten eta bidezkoak ez diren gabeziak egiaztatu direlako sortu da, eta, gaur egun, berdintasunaren alde egiteko erreferentia da».

### **Aurretik emandako sariak**

2018an, alegia, aurreko eta lehenengo edizioan, saria eman zitzaion Blanca Fernández Viguerari, ikertzaile sozial eta mugimendu feministen aitzindariari.